

Kulturaren Plan Estrategiko berri bat Nafarroarako **2024-2028**

Kultura-ondarearen mahaian parte
hartzeko dutenentzako
lan-koaderno

Aurkibidea

1.- Aurkezpena	3
2.- Nola egingo dugu lan saioan?	4
Lehen Zatia	
3.- Abiapuntua: datu interesgarri batzuk	5
3.1.- Zer ondorio atera dira 2017-2023 NKPE-tik kultura-ondareari dagokienez?	5
3.2.- Nafarroako kultura-ondarearen egungo egoerari buruzko zenbait erreferentzia	9
3.3.- Lehenengo gogoetak eta erronkak kultura-ondarearen eremuan	13
Bigarren zatia	
4.- 2024-2028 NKPE berri baterako gogoetak eta ideiak partekatzen	15

1.- Aurkezpena

Nafarroako Gobernuko Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Foru Komunitaterako Kulturaren Plan Estrategiko bat (NKPE) egitea sustatu, koordinatu eta kudeatzen du datozen urteetarako (2024-2028).

Zein

helburu lortu nahi da?

Ekintza Plan bat eraikitzea da helburua, aurreko Planaren (2017-2023) ebaluazioan, egungo egoeraren diagnostikoan eta sektore profesionalaren eta herritarren ekarpenetan oinarrituta, Nafarroako kulturaren arloko jarduerak orientatzeko eta balioesteko tresna gisa balioko duena.

Nola

eratzten da Plan hau?

4 lan-fase zehaztu dira:

I. eta II. faseetan, 2017-2023ko NKPE-aren ebaluazioa eta Nafarroako kultura- eta sormen-sektorearen egungo egoeraren diagnostikoa garatu dira.

III. fasean, herritarrekin eta kultura- eta sormen-eragileekin partaidetza-prozesuari heltzen zaio, zenbait lan-mahai antolatuz.

Azken fasean 2024-2028 NKPEa egingo da.

Lurralde mahaien

helburua

Parte-hartze prozesua 2023ko azaroaren 6an hasiko da 15 saio sektorial, lurraldekoak eta zeharkakoak eginez hainbat herritan. Mahai sektorialak Iruñean egingo dira, eta gai hauek jorratuko dituzte: museoak; ondarea; arte plastikoak eta ikusizkoak; ikus-entzunezkoen industria/industria digitala; artxiiboak eta dokumentu-ondarea; liburuak eta liburutegiak; arte eszenikoak eta musika.

Kulturaren eta sormenaren arloko profesionalen/eragileen eta horien azpisistema guztien beharrak/zailtasunak/ahuleziak identifikatzea da helburua, eta 2024-2028 NKPE-aren estrategiak eta jarduera-ildoak eraikitzeko balioko dieten ekintza-proposamenak ezartzea. Mahai hauek interesa duen edozein kultur eragileri irekiak dira, eta izena eman ahal izango dute beren hausnarketak eta proposamenak partipianavarra webgunearen bitartez adierazteko.

2.- Nola egingo dugu lan saioan?

Nafarroako kultura-ondarearen beharrian eta lehentasunei buruz modu partekatuan hausnartzeko eta behar horiei erantzuteko gure ideiak emateko aukera izango dugu. Saioarengidoia honako hau izango da:

Edukia	Arduraduna
Lehen zatia	
<p>Ongi etorria NKPE saioaren helburuak</p> <p>Testuinguru orokor laburra: aurreko planaren ebaluazioaren eta Nafarroako kultura-ondarearen egungo egoeraren diagnostikoaren emaitzak; hasierako gogoetak eta erronkak</p>	<p>Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia</p> <p>Ikerpartners</p>
Bigarren zatia	
<p>1. Lan dinamika: Kulturaren balio-katea kontuan hartuta, zer behar, zailtasun eta ahulezia aurkitzen ditugu Nafarroako kultura-ondarearen eremuan? Dimentsio bakoitzean zailtasun eta ahulezia horiek identifikatzea eta lehenestea da helburua. Metodologia: Banakako gogoeta laburra + Taldekako gogoeta</p>	<p>Saioko parte-hartzaileak Ikerpartnersek dinamizatu</p>
<p>2. Lan dinamika: NKPE 2024-2028 berrirako IDEIEN MAPA bat eraiki Nola erantzun diezaiekegu aurkitutako zailtasunei? Nafarroan kultura-ondarearen eremua garatzeko ideiak eta ekarpenak Metodologia: Taldekako lana + Taldekako gogoeta</p>	<p>Saioko parte-hartzaileak Ikerpartnersek dinamizatu</p>
Saioarengidoia	
<p>Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia</p>	

LEHENENGO ZATIA

3.- Abiapuntua: datu interesgarri batzuk

3.1.- Zer ondorio atera dira 2017-2023 NKPE-tik kultura-ondareari dagokionez?

1. Kultura- eta arkeologia-ondarera bideratutako gastua handitu egin da 2017 – 2022 urteen artean, % 38,7 igo da, eta balio altuena 2019an lortu du (5,2 milioi euroko gastua). Aldi osoan 28 milioi euroko gastua izan da, hau da, ondarearen alorreko guztizko gastuaren % 26,6 eta kulturako guztizko gastuaren % 10,7.

Kulturan gauzatutako gastuaren bilakaera, gastua nora bideratzen den arabera. 2017-2022

Gastua nora bideratzen den:	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Kulturako Zerbitzu Nagusiak	4.166.832	4.341.317	4.599.146	4.798.350	4.803.888	5.045.239
ONDAREA	13.892.242	16.750.190	17.334.227	17.484.266	18.465.880	19.857.797
Ondare historikoaren administrazioa, kontserbazioa eta zaharberritzea, arkeologia	3.425.546	4.892.517	5.189.641	4.696.516	4.692.644	4.752.923
Liburutegiak	4.505.870	4.829.700	5.082.759	5.305.996	5.525.933	6.134.272
Museoak	3.794.190	4.638.280	4.525.953	4.918.852	5.349.750	5.784.732
Artxiboak	2.166.636	2.389.693	2.535.874	2.562.902	2.897.553	3.185.870
KULTURA-EKINTZA + KSI	17.844.054	18.602.440	21.549.039	20.860.151	22.549.949	25.334.638
Musika, dantza, antzerkia, zinematografia eta beste arte eszeniko batzuk	6.317.970	5.910.998	6.565.999	5.950.219	6.069.755	6.556.6133
Liburuaren sustapena eta kultura-argitalpenak	48.502	45.636	47.835	295.285	323.052	337.556
Kultura-sustapena eta -lankidetzak	11.477.582	12.645.806	14.935.205	14.614.647	16.157.142	18.440.469
Guztizko orokorra	35.903.128	39.693.947	43.482.412	43.142.767	45.819.717	50.237.674

Iturria: Nafarroako Gobernu Irekia, Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.

2. Kultura- eta arkeologia-ondarera bideratutako transferentzia arruntak %

35,5 gehitu dira 2017 eta 2022 bitartean

2017-2022 aldian egindako transferentzia arrunt guztien % 12,5 Ondarera bideratu da, eta ehuneko horretatik % 7,5 kultura- eta arkeologia-ondareari dagokio. Ondarearen eremuan garrantzitsuak dira museoetarako transferentzia arruntak, 11 milioi euro inguru biltzen baitituzte 2017-2022 aldian.

Transferentzia arrunten bilakaera, gastua nora bideratzen den arabera. 2017-2022

Gastua nora bideratzen den:	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2017-2022
Kulturako Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak			13.811				13.811
ONDAREA	1.575.599	1.697.050	1.739.387	1.907.067	2.139.815	2.901.928	11.960.846
Ondare historikoaren administrazioa, kontserbazioa eta zaharberritzea, arkeologia	174.539	104.469	116.835	120.031	143.075	236.471	895.420
Liburutegiak			14.161	97		21.079	35.337
Museoak	1.485.903	1.570.472	1.594.400	1.761.613	1.918.031	2.616.629	10.947.048
Artxiboak	15.157	22.109	13.991	25.326	78.709	27.749	183.041
KULTURA-EKINTZA + KSI	10.949.277	11.774.022	13.793.963	14.170.719	15.241.904	17.548.337	83.478.222
Musika, dantza, antzerkia, zinematografia eta beste arte eszeniko batzuk	5.909.381	5.738.298	6.363.395	5.950.219	5.813.667	6.291.755	36.033.715
Liburuaren sustapena eta kultura-argitalpenak				140.149	142.538	146.786	429.473
Kultura-sustapena eta -lankidetzak	5.039.896	6.035.724	7.430.568	8.080.351	9.285.699	11.109.796	46.982.034
Guztizko orokorra	12.624.876	13.471.072	15.547.161	16.077.786	17.381.719	20.450.265	95.552.879

Iturria: Nafarroako Gobernu Irekia, Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.

3. Inbertsioen zatirik handiena ondare historikora bideratu da.

2017-2022 aldian Inbertsioetara bideratutako 21.436.621 milioi euroetatik, Ondareak 20,7 milioi euro bildu ditu, hau da, egindako inbertsio guztien % 96,4.

Ondarearen esparruan, Ondare historikoaren administrazioak, kontserbazioak eta zaharberritzeak inbertsioen % 41 hartu zuen 2017-2022 aldian; honen atzetik kokatzen dira, Artxiboak (% 23), Liburutegiak (% 20) eta Museoak (% 16).

Inbertsioen bilakaera, gastua nora bideratzen den arabera. 2017-2022

Gastua nora bideratzen den:	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2017-2022
Kulturako Zuzendaritza eta Zerbitzu Orokorrak	36.405	78.000	30.246	52.585	62.888	62.636	322.760
ONDAREA	1.917.716	3.489.383	3.460.848	3.621.626	4.178.147	3.987.451	20.655.171
Ondare historikoaren administrazioa, kontserbazioa eta zaharberritzea, arkeologia	661.091	1.426.188	1.427.274	1.506.041	1.664.877	1.763.205	8.448.676
Liburutegiak	522.803	535.941	691.109	726.934	818.676	795.563	4.091.026
Museoak	224.877	851.296	523.902	584.843	704.064	390.362	3.279.344
Artxiboak	508.945	675.958	818.563	803.808	990.530	1.038.321	4.836.125
KULTURA-EKINTZA + KSI	103.050	46.044	63.363	101.498	92.554	52.181	458.690
Kultura-sustapena eta -lankidetzak	103.050	46.044	63.363	101.498	92.554	52.181	458.690
Guztizko orokorra	2.057.171	3.613.427	3.554.457	3.775.709	4.333.589	4.102.268	21.436.621

Iturria: Nafarroako Gobernu Irekia, Nafarroako Aurrekontu Orokorrak.

4. Next Generation funtsak

Espainiako Gobernuaren Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak finantzaketa gehigarria eman dio Nafarroari, dirulaguntza gisa, turismo-erabilerako ondare historikoa mantentzeko eta birgaitzeko proiektu iraunkorrak finantzatzeko. Proiektu horretan sartzen da Leyreko San Salvador monasterioko jarduketa-proiektua, 1.700.000 euroko aurrekontuarekin.

Horrezaz gainera, Next Generation Funtsekin finantzatutako beste proiektu batzuk ere badaude, Nafarroa Suspertzeko Planaren esparruan. Horien artean, ondare historikoarekin lotutako proiektu batzuk nabarmentzen dira, hala nola Vianako Dorrea Zaharberritzeko MRR Kudeaketa Plana (959.862 euroko finantzaketarekin) eta Kultura-ondareko ondasunen inbentarioaren eta Ondare Historikoaren Zerbitzuaren deskribapena eta digitalizazioa (99.174 euroko finantzaketarekin).

5. 2017-2023ko NKPE-aren aurrerapena kultura-ondarearen eremuan

EHKPrek ekintza-ildoetako bat, 9. ardatzean, kultura-sektoreei eta haien balio-kateari buruzkoa, honako hau zen: kultura-ondarearen esparruan finantzaketa publikoa handitzea. Helburu hori lortutzat jo da, monumentuak kontserbatzeko, zaharberritzeko eta egokitzeko urteko inbertsioak hirukoiztu egin baitira 2018arekin alderatuta. Horrez gain, beste finantzaketa-ildo batzuk ere gehitu dira, hala nola transferentzia arruntak eta kapital-transferentziak, edo arkeologia-aztarnategietan esku hartzeko laguntzak.

Gainera, kultura-ondarearen eremuak esku hartu duen ekintzen bidez, zeharka lagundu da Planaren aurrerapenean, hala nola:

- Nafarroako Kultur Ondare Immaterialaren Inbentarioa edo Ondare Immaterialaren Nazioarteko Kongresua bezalako ekimenen bidez, lurraldeko kultura-kohesioa indartu da, Nafarroako lurraldeen kultura-nortasunaren ezaugarriak identifikatu, indartu, bereizi eta balioesteko estrategiak garatzen lagundu baitute.
- Ondarearen Europako Jardunaldiek kultura Nafarroako lurralde osora hedatzen ere lagundu dute, eta Nafarroako 262 herri zeharkatu dituzte, 2017-2022 aldian 44.157 pertsonak parte hartu dutelarik.
- Sektorea profesionalizatzen lagundu da, eta, batez beste, ondare historikoko profesionaleri zuzendutako 10 ikastaro eskaini dira urtean.
- Kultura- eta arte-eragileei eta, oro har, herritarrei kultura-ekipamenduetarako sarbidea errazteko ekimenak bultzatzen lagundu da, Ondare Historikoaren Zerbitzuaren eta toki-erakundeen arteko lankidetzaren bidez, ondare-balioa duten espazioen eta azpiegituren irisgarritasuna berreskuratzeko eta hobetzeko, proiektuak finantzatzeko lerroen bitartez, adibidez, arkitektura-oztopoak kentzeko, zerbitzuak hobetzeko (komunak, bisitarien harrera, etab.).

3.2.- Nafarroako kultura-ondarearen egungo egoerari buruzko zenbait erreferentzia

Nafarroako Ondare Historikoaren ezaugarriei dagokienez, BIC gisa inskribatutako ondasun higigarrien eta higiezinaren kopurua egonkor mantendu da azken 4 urteetan, eta igoera txiki bat izan du 2021ean (% 1,4).

Nafarroan Interes Kultureko Ondasun gisa inskribatutako ondasun higigarri eta higiezinaren kopuruaren bilakaera.

Ondasun mota	2017	2018	2019	2020	2021
Ondasun higigarriak					
Guztira	2.858	2.243	2.244	2.244	2.270
Aitortuak	2.827	2.228	2.229	2.229	2.257
Irekia	31	15	15	15	13
Ondasun higiezinak					
Guztira	192	193	194	203	198
Aitortuak	166	167	168	178	173
Irekia	26	26	26	25	25

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Ondare Historikoaren Erregistroen eta Dokumentazioaren Zuzendariorde Nagusia: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Nafarroan Interes Kultureko Ondasun gisa inskribatutako ondasun higigarri eta higiezinaren kopuruaren bilakaera.

Ondasun mota	2017	2018	2019	2020	2021
Ondasun higigarriak					
Guztira	2.858	2.243	2.244	2.244	2.270
Aitortuak	2.827	2.228	2.229	2.229	2.257
Irekia	31	15	15	15	13
Ondasun higiezinak					
Guztira	192	193	194	203	198
Aitortuak	166	167	168	178	173
Irekia	26	26	26	25	25

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Ondare Historikoaren Erregistroen eta Dokumentazioaren Zuzendariorde Nagusia: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Enpresa gehienek ez dute soldatapeko langilerik.

Ondarearen eremuko Nafarroako enpresak, soldatapekoen tartearen arabera (2022ko urtarrilaren 1ean)

	Soldatapekorik gabe	1-2 soldatapeko	3-5 soldatapeko	6-9 soldatapeko	Guztira
Ondare historikoa ¹	26	1	1	1	29

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua. Nafarroako Enpresen Direktoria (DENA).

Erregimen orokorreko afiliazioen eta autonomoen kopurua, Nafarroako Gizarte Segurantzaren arabera (2022ko abenduaren 31n)

	Autonomoak	Erregimen orokorra	Guztira	% Emakumeak
Ondarea	7	11	18	50

Iturria: Nafarroako Estatistika Institutua, GSDOK lagatako Gizarte Segurantzako afiliazioari buruzko datuetan oinarrituta.

¹ EJSN 9103 "Toki eta eraikin historikoen kudeaketa".

Kultura-ohiturak eta -praktikak. Monumentu edo aztarnategi arkeologikoak bisitatzen dituen Nafarroako biztanleria % 51,5etik % 32,8ra jaitsi da 2014an 2022an.

Azken urtean monumentu eta aztarnategi arkeologikoak bisitatu zituzten pertsonen ehunekoaren bilakaera.. 2014-2022

Ondare mota	2014-2015	2018-2019	2021-2022
Monumentuak	51,5	46,9	32,8
Aztarnategi arkeologikoak	20,2	18,1	10,4

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Kultura-ohiturak eta -praktikak. Nafarroako biztanleek monumentuekiko duten batez besteko interes-maila 5,5ekoa da 2022an, 0tik 10era bitarteko eskalan; aztarnategi arkeologikoen batez besteko interesa 4,5 puntukoa da.

Pertsonen ehunekoaren bilakaera Nafarroako monumentuekiko interes-mailaren arabera (0-10 balorazioa) 2014-2022

Balorazioa	2014-2015	2018-2019	2021-2022
10etik 9ra	11,8	16,3	12,9
8tik 7ra	31,6	33	29,5
6tik 5era	24,5	21,1	29,5
4tik 3ra	10,6	6,2	9,2
2tik 0ra	21,5	23,5	18,9
Batez besteko balorazioa	5,4	5,5	5,5

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

Pertsonen ehunekoaren bilakaera Nafarroako aztarnategi arkeologikoen interes-mailaren arabera (0-10 balorazioa). 2014-2022

Balorazioa	2014-2015	2018-2019	2021-2022
10etik 9ra	9,6	11,8	10
8tik 7ra	21,6	27,1	20,4
6tik 5era	22,6	23,2	27,3
4tik 3ra	16	7,2	12
2tik 0ra	30,2	30,7	30,3
Batez besteko balorazioa	4,6	4,8	4,5

Iturria: Kultura eta Kirol Ministerioa. Espainiako kultura-ohiturei eta -praktikei buruzko inkesta: Nafarroako Foru Komunitateari dagozkion datuak.

3.3.- Kultura-ondarearen arloko lehen gogoetak eta erronkak

Atal honetan, KZN-PVE-ko Ondare Historikoaren Zerbitzuarekin alde batetik eta beste alde batetik kultura-ondare immaterialari buruz Museoen Zerbitzuarekin egindako hausnarketak biltzen dira, kultura-ondare materialaren eta ez-materialaren sektoreak gaur egun dituen erronka nagusiak identifikatzeko.

FUNTSEZKO GAIAK ONDARE HISTORIKOAREN ESPARRUAN

- 1.** Teknikari espezializaturik ez izatea eta enpresa espezializaturik ez izatea
Bizirauteko, beharrezkoa da Administrazioak zaharberritze-proiektuak sustatzea.
- 2.** Belaunaldi-erreleborik eza
Gero eta jende gutxiagok egiten du eremu horretan, eta zaila da ondarean espezializatutako profil jakin batzuk aurkitzea: harrobia, zurgintza, zaharberritzea...
- 3.** Esparru akademikoarekin (unibertsitateak) harreman estuagoa izateko beharra
Erakunde horiekiko lankidetzak beharrezkoa da ikerketa diziplina anitzeko ikuspegi batetik bultzatzeko (arkeologia, topografia, geografia, epigrafia...).
- 4.** Indarrean dagoen araudia berrikustea
Zaharkituta geratu da zenbait alderditan, eta hobetu egin daiteke erregelamenduzko garapen batekin.
- 5.** Zabalkundea bultzatzeko beharra
Ekintzak sustatzen dira, baina ez espero zitekeen arrakastarekin. Garatu beharreko ildo bat jarduera horretan espezializatutako unitate bat sortzea izan liteke.

FUNTSEZKO GAIAK KULTURA-ONDARE INMATERIALAREN ESPARRUAN

6. Lanbide-profil espezializatuak aurkitzeko zailtasunak

Ez da bultzatzen garrantzi ekonomiko nahikoa duen edo denboran egonkorra den proiekturik.

7. Zaharberitze-proiektuetan kultur ondare immaterialaren babesa zeharka sartzeko beharra

Kultura-ondare immaterialak sinbolismoarekin, erabilerekin, zaharberitu beharreko ondasunaren inguruko imajinarioarekin, komunitateak ematen dion esanahiarekin... zerikusia du, ondasuna alderdi horiek kontuan hartu gabe aldatzean, desagertzeko arriskua egon daiteke.

8. Kultur ondare immateriala babesteko zailtasunak

Eramailen errelebo-falta: ondare horren zati handi bat hura daramaten pertsonengan edo kolektiboengan dago, eta ondare horren iraupena ondare hori hurrengo belaunaldiei transmititzearen mende dago, batez ere ahozkoatasunaren bidez. Baina ez dago legatu hori jasotzen duen pertsonarik.

Beste batzuetan, ondare hori ondare-esku-hartze baterako kategoriarik ez duten ondasun higigarriei lotuta dago (plazak, frontoiak...). Beste batzuetan, babes horretan eragin negatiboa duten araudiekin talka egiten du (adibidez: osasun publikoa eta gaztagintza eskuz egitea; espazio publikoetako zaraten ordenantzak eta kanpaiak;...).

9. Jabetza intelektualari lotutako zailtasunak

Kultura-ondare immaterialarekin, komunitateei eragiten dieten zalantzazko legitimitatea duten jabetzeak gertatzen dira.

10. Erronka bat Administrazioarentzat: babes eraginkorraren gaia nola kudeatu

Noraino iristen den kultura sailaren eskumena.

11. Nola identifikatu jardunbide egokiak

Turismoa eta kultura-ondare immateriala uztartzeko; desagertzeko arriskua saihesteko; indibidualitateak, estiloak... galtzea saihesteko, horrek ondarearen aberastasuna eta aniztasuna galtzea ekar dezakeelako.

BIGARREN ZATIA

4.- 2024-2028 NKPE berri baterako gogoetak eta ideiak partekatzen

Saioaren zati honetan, hausnarketa partekatua egingo dugu bi ikuspuntutik:

1º. Nafarroan kultura-ondarearen arloan dauden beharrak, zailtasunak eta ahuleziak identifikatuko ditugu

- Balio-katea oinarritzat hartuta, kultura-ondarearekin lotutako hausnarketa-elementu batzuk planteatzen ditugu
- Hautatu lan egitea LEHENTASUNEZKOTZAT dituzun 4 eremu
- Adierazi ZERGATIK uste duzun zailtasun/beharrak handiagoa dutela

Horretarako Fitxa 1 jartzen dizugu eskura
(banakako lana + taldekako gogoeta)

2º. Ideia eta ekarpen MAPA BAT marraztuko dugu, lehenetsi ditugun beharrei erantzuteko.

- Lehen identifikatu den dimentsio bakoitzerako, asmoa da taldean ondorengo galderari erantzutea: nola erantzun diezaiekegu aurkitutako zailtasunei?
- Zer proposatzen dugu Nafarroan kultura-ondarearen egoera hobetzeko?

Horretarako Fitxa 2 jartzen dizugu eskura
(taldekako lana + taldekako gogoeta)

1. Dinamika. **GOGOETA-ELEMENTUAK**, balio-katetik eta beste gogoeta batzuetatik abiatuta proposatzen ditugunak, Nafarroako kultura-ondarearen eremuko beharrak, zailtasunak eta ahuleziak identifikatzeko. Hasieran planteatu ez diren beste gai batzuk identifikatzeko proposamen irekia (*1. fitxarekin batera joango da bakarkako lanerako*).

Prestakuntza eta lkerkuntza (eremu akademikoarekin lankidetzeta, jardunbide egokien identifikazioa,...)

Babesa, kontserbazioa, zaharberritzea (ondare materiala eta ez-materiala babestea...)

Balioa ematea eta zabaltzea

Eraldaketa digitala, berrikuntza

Baliabideak eta laguntzak (finantzaketa, langile espezializatuak...)

Belaunaldi-erreleboa

Kultura-ohitura eta -kontsumoa

Aliantzak (ekintza koordinatua)

Beste gai batzuk

2. Dinamika. Ideia eta ekarpen MAPA BAT marraztuko dugu, lehenetsi ditugun beharrei erantzuteko

Lehenetsitako eremua

Nola hobetu dezakegu egoera? Garatzeko/indartzeko ideiak

Erantzukizunak: garapenerako eragile nagusiak (administrazio publikoa, kultur eragileak, herritarrak, hirugarren sektorea...)

Eremu 1

Eremu 2

Eremu 3

Eremu 4

Eskerrak eman nahi dizkiegu Nafarroan datozen urteetako
Kultura Plan Estrategiko bat eraikitzeko erronkan
aktiboki parte hartu duten pertsona
eta erakunde guztiei